

Familia-harreraren jarraipena Gipuzkoan: gaur egungo egoera eta hobekuntzarako proposamenak ikerkuntzaren eremutik

**Arantxa Gorostiaga (EHUko irakaslea), Cristina Herce, Cristina Achúcarro,
Bárbara Torres Gómez de Cádiz eta Ana Rivero (LAUKA zentroko psikologoak)**

Artikulu honen abiapuntua gure testuinguru hurbilean haurren babesarako neurri gisa erabiltzen den familia harreraren ezaugarriak eta garapena aztertzeko eta hobetzeko dagoen premia izan da. Horretarako, LAUKA zentroak Gipuzkoan gaur egun aurrera daraman Familia Harreraren Laguntza eta Jarraipen Programa Espezializatua deskribatzen da laburki. Era berean, zentro horrek, Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko bi irakaslerekin batera, familia-harreraren dauden haur eta nerabeen garapen sozio-emozionalaren inguruan burututako ikerketetatik abiatuz, hainbat iradokizun egiten dira familia-harreraren jarraipen-programen diseinua eta garapena hobetzeko, eta familia-harreraren prozesuko beste zenbait arlotan sortzen diren hainbat arazo konpontzeko.

The present article is inspired by the need to explore and improve the development and characteristics of family foster care as a means of child protection in our most immediate context. To this end, we present a brief description of the *Specialised Support and Follow-up Programme for Family Foster Care in Gipuzkoa*, currently being developed in the *Lauka* Centre. Moreover, and on the basis of research carried out at this centre and by two lecturers from the Psychology Faculty of the UPV/EHU on the socio-emotional development of family foster children, we offer a series of suggestions for optimising the design and development of follow-up programmes for Family Foster care, as well as for solving various problems that arise in other areas of the family foster care process.

1. Sarrera

1995eko azaroaz geroztik, Familia eta Komunitate Ikerketa eta Esku-hartzean aritzen den LAUKA elkarte, Familia Harreraren Laguntza eta Jarraipen Programa Espezializatua burutzen ari da Gipuzkoan. Programa hori, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailaren (GIZARTEKINTZA) menpe garatzen da. Urte hauetan zehar, Programa horretan zenbait aldaketa egin dira egoera eta behar berrietara egokitzeko*.

Jakina denez, familia-harrera babes-neurri gisa erabiltzen den irudi juridikoa da eta adingabeak euren familia-bizitza naturala osatzen duen familia-giroan integratzen ditu, nahiz gurasoek Guraso-agintea galduta izan ala ez. Horrela, harrera-familiak zaintzaren funtzioak bere gain hartzen ditu. Izan ere, «...adingabeak familia-bizitzan parte hartzen du erabat eta harrera-gurasoek hura zaindu, babestu, elikatu, hezi eta hezkuntza integrala eskaini behar dute». (Azaroaren 11ko adopzioaren eta familia-harreraren inguruko 21/1987 legea).

Era berean, edozein adingabe babesteko hartutako neurriak modu egokian gauzatzen ari direla bermatzeko legezko obligazioa dute haur-babes gaietako erakunde eskudunek. Testuinguru horretan kokatzen da LAUKA zentroan aurrera daramaten Programa Espezializatua.

Jarraian, Programa horren jatorrian dagoen eremu teorikoa aurkeztuko dugu, bere oinarriko printzipioak eta ezaugarriak, bertan eskaintzen diren zerbitzuak eta Programatik abiatuturik garatu diren ikerketa-lanak. Era berean, familia-harreraren eremuan egiten den lana indartzeko eta hobetzeko balio dezaketen zenbait ondorio eskainiko dira.

2. Programaren eremu teorikoa

Familia Harreraren Laguntza eta Jarraipen Programa Espezializatu honen sustraian, gizarte-ongizatearen eta berau lortzera bideratutako politiken inguruko gaur egungo kontzepzio zientifikoak daude. Zehatzago esanda, Programa 1998an Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailak (GIZARTEKINTZA) aurkeztutako Haur eta Gazte Plan Orokorren jarduerarako oinarriko printzipioekin bat dator. Horregatik, Plan Orokor horrek gure Programaren *lehenengo oinarriko erreferentzia-ardatza* osatzen du, eta Gizarte Zerbitzu Espezializatuen arloan Familia Harreraren inguruko Esku-hartze eremuan zehaztutako helburu partikularrak gidatzen ditu.

Programa honen oinarrian dagoen *bigarren ardatz nagusia* gure jardueren eremu partikularrean haur-babesa artikulatzen duen marko juridikoak mugatzen duena da. Horrela, erreferentziarako oinarriko arau gisa honako hauek aipa daitezke: azaroaren 11ko adopzioaren eta familia-harreraren inguruko 21/1987 legea; Haurren Eskubideen Konbentzioa, 1989ko azaroaren 21ean Nazio Batuen

*. Artikuluan aipatzen diren ikerketek Euskal Herriko Unibertsitateko Ikerkuntza eta Nazioarteko Harremanetarako Errektoreordetzak emandako diru-laguntza jaso dute (Proiektuen kodeak: UPV 109.231-HA151/98 eta 1UPV 00109.231-HA-7766/2000). Era berean, autoreek Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiek eta Gasteizko Udaletxeak aipaturiko ikerketa horiek egiteko eskainitako laguntza eskertu nahi dute.

asanblada orokorrak onartua, eta gure herrian berretsi ondoren, 1991ko urtarrilaren 5etik indarrean dagoena (1990eko abenduaren 31ko E.B.O.); eta Adingabeen Babes Juridikoko 1/1996 Lege Organikoa, familia-harreraren neurriaren deskribapen zabala egiten duena.

Gainera, beharrezkoa da azpimarratzea Programa honek haur-babesa eta, beraz, familia-harrera haurren ongizatea sustatzera bideratutako kontzepzio positibotik ulertzen duela (Redondo, Muñoz eta Torres Gómez de Cádiz, 1998). Zentzu horretan, gure Programaren *hirugarren ardatz* teoriko nagusia osatzen dute "haurren beharren taxonomia" jakin baten onarpenak (López, 1995) eta haurren ongizatea behar horien asetze egoki gisa ulertzeak.

Haurren beharren sailkapen hori giza garapenaren teoria orokorrago baten baitan kokatzen da (Bronfenbrenner, 1979, 1985). Teoria honen arabera, giza garapena zenbait premia dituen *banakoaren* eta behar horiek asetzeko baldintzak eskaini edo ukatzen dituen bere *ingurune ekologikoko* testuinguru ezberdinen arteko interakzio dinamikoaren ondorio gisa ulertzen da. Beraz, interakzio-prozesuaren alderdi batean *adingabea* dago, espezieari nahiz banakoari dagozkion ezaugarriekin; bi osagaiek, espezieari eta banakoari dagozkieken, hain zuzen ere, osatzen dute interakzio-prozesura haurrak ekartzen duen bagajea, prozesu horretan bitartekotza eginez. Horri dagokionez, garrantzitsua da azpimarratzea *adingabea* ezin dela ulertu egokitzen ari den testuinguru ezberdinen emaitza pasibo gisa, baizik eta jaiotzatik interakzioan eta ondorioz, bere beharren eta besteen beharren asetzean parte hartzen duen agente aktibo gisa (López, Torres Gómez de Cádiz, Fuertes, Sánchez eta Merino, 1995). Bestalde, interakzio-prozesuaren beste alderdian, Bronfenbrenner-en (1979, 1985) terminologiari jarraituz, *ingurune ekologikoa* dago. Ingurune hori, banakoaren, gure kasuan *adingabearen*, garapen-testuinguru ezberdinek osatzen dute eta mikro-, meso-, exo- eta makro-sistema gisa ezagutzen diren egitura kontzentrikoek antolatzen dute topologikoki.

Horregatik, Programa honen oinarritzko *laugarren ardatz* teorikoa paradigma ekologiko-sistemikoak osatzen du. Azken batez, Programan aurrera eramaten diren jarduerak harreran dagoen *adingabeen* garapen-testuinguruak bere beharrak modu egokian asetzerara bidera daitezzen saiatu behar dira.

Giza garapenaren ikuspegi ekologiko-sistemiko hori onartuta ere, testuinguru guztiek ez dute pisu bera haurraren garapenean izango duten eraginari dagokionez, ezta *adingabeak* testuinguru eta harreman horietan izango duen eraginean ere. Zalantzarik gabe, garapen-testuinguru horien artean familia-sistema nabarmentzen da bereziki, gure gizartean familia baita oinarritzko antolakuntza soziala. Gainera, beste testuinguruekin harremanetan, haurraren funtsezko beharrak asetzeko ardura dauka familiak. Familiaren barruan, gizarteratzeko agente-sarea dei genezakeenaren barruan gurasoen irudiak leku pribilegiatua hartzen du (López, 1995). Hori dela eta, planteatzen ari garen Programa honetan, inplikaturiko beste agente eta sistemak ahaztu gabe, jarduera asko guraso biologikoengana eta harrera-gurasoengana zuzentzen dira; eta gurasoen funtzionamendua ulertzeko J. Belsky-k (1984) proposaturiko eredu ekologikoak garrantzi berezia hartzen du.

Giza garapenaren teoria orokor horretatik eratorritzen da haur-babesaren eta, ondorioz, familia-harreraren garapenezko ikuspegia hartzeko beharra (Berrick, Needell, Barth eta Jonson-Reid, 1998; CWLA, 1995; Fine, 1994; López, 1995; Maluccio, Fein eta Olmstead, 1986; Redondo *et al.*, 1998). Ez da soilik “garapen organismoengan” (adingabeak) esku hartuko, familia-harrerak berak ere *trantsizio ekologiko* garrantzitsua dakar. Izan ere, haur bat familian sartzeak bien ingurune ekologikoa nabarmen aldatzea dakar: garapen-testuinguruko elementuetan, hots, aktibitate eta roletan, nahiz garapen-testuinguru beretan ere aldaketak egoten baitira. Ondorioz, garapen ikuspegiak Programa honen erreferentzia-marakoaren *bosgarren oinarritzko ardatza* osatzen du, babes-neurri hori abian jartzean inplikaturik dagoen prozesuari nahitaez lotutako denbora-dimentsioa eta bizitza-zikloa azpimarratuz.

Azkenik, erreferentzia-marko horretan haurren beharrei eskainitako nagusitasunarekin ados, Programa oinarritzeko *seigarren ardatza* kalitateaz dugun ardura izango litzateke.

3. Programaren oinarritzko printzipioak

Aurkeztu berri dugun eremu teorikoa, sei ardatzen inguruan definitzen dena, Programaren oinarrian dauden filosofia eta oinarritzko printzipioak ulertzeko erreferente egokia dela pentsatzen dugu. Oinarritzko printzipioen artean ondokoak azpimarra ditzakegu:

1. Aukeratutako familia-harreraren eredua bat etorri behar da adingabearen familia-inguruneak bere egoeraren egonkortasuna bermatzeko beharrezkin. Horretarako, neurri hori hartu baino lehen, haurrak euren familietan mantentzeko edo, dagokionean, beste egonkortasun-plan batzuen inguruko ebaluazio zehatza eta saiakerak egon behar dute.
2. Adingabeen harrera egonaldia ez da beharrezkoa dena baino denbora gehiago luzatuko, ustekabeko hausturak edota haustura goiztiarrak ez gertatzeko planifikazio egokia beharrezkoa izanik.
3. Ikuspegi ekologikoaren arabera eta, posible denean, haurren beharretara egokituz, harrerak ez du adingabearen eta bere ingurune sozialaren eta familiarraren arteko hausturarik ekarri behar. Horrela, familia-harrera adingabearentzat ezezagunak diren pertsonekin abian jarri aurretik, aztertu behar da egokia den harrera-familia haurren familia hedatua (bere ahaideak edota berarekiko lotura afektibo positiboak dituzten pertsonak) izatea.
4. Harrera Programa, harreraren dauden adingabeen arretara, laguntzara eta tratamendura zuzendu behar da, beren beharren asetzea bermatzeko asmoz. Hori dela eta, Programaren zerbitzuen barruan arreta eskaini behar zaie haurren familia naturalari eta baita harrera-familiari ere. Horretarako, garrantzitsua da jarraipen- edota laguntza-zerbitzuak egotea harrera hasi aurretik, irauten duen bitartean eta bukatu ondoren, adingabearentzat, bere familia biologikoarentzat eta harrera-familiarentzat.

5. Programan eskaintzen diren zerbitzuek ondokoa lortu behar dute: a) haurra-
ren heltze-prozesu normala eragiteko esperientzia eta baldintzak eskain-
tzea; b) adingabearen etorkizuneko kalteak aurreikustea eta, c) haurra-
ren nortasunaren garapen osasuntsua eragotz dezaketen arazo espezifikoak
arintzera eta zuzentzera bideratutako errekurtsoak lortzen saiatzea.
6. Familia-harrerak adingabeek euren identitate eta segurtasun pertsonalaren
sentimenduak garatzeko beharra asetzea lortu behar du. Beraz, neurri
honek identitatearen eraikuntzan eragiten duten faktoreak areagotu behar
ditu: a) haurtzaroen ingurune seguru batean maitatuak direnako sentipenen
esperientzia; b) parte-hartze eta autonomia progresiboaren sustapena; c)
norberaren jatorriaren eta historiaren ezagutza, eta d) besteek pertsona
baliagarritzat hartzen dutelako esperientzia.
7. Familia-harreran dauden haurrek tratamendua jaso behar dute, iraganean
jasandako esperientzia ezkorren efektuak arintzeko eta euren familiengan-
dik banatuak izateak bestelako tratu txar edo trauma emozional ez bihurtze-
ko.
8. Adingabeari eragiten dioten banaketa guztiek trauma eragin dezaketenez,
modu egokian prestatu behar dira alde aurretik. Horretarako, adingabea,
bere familia biologikoa eta harrera-familia prestatu behar dira, harreraren
hasteak dakarren banaketarako eta aurreikusitako harreraren bukaerarako
ere (etxera itzultzea, harrera-familia berria, adopzioa, emantzipazioa...).
9. Garrantzitsutzat jotzen da adingabearen familia naturalaren parte-hartzea
indartzea harrera-prozesu guztian, iraupena edozein izanik ere eta lortu
nahi den helburua bere familiara itzultzea izan ala ez (salbuespena litzateke
parte-hartze hori adingabearentzat desegokitzen jotzen denean). Bereziki
saiatu behar da familia biologikoak harreraren arrazoiak, baldintzak eta
helburuak ezagut eta uler ditzan, haurra-ongizatean izango dituen alderdi
positiboak uler ditzan, familia horren onarpena eta kolaborazioa areagotuz
prozesu guztian.
10. Harrera inklusiboaren filosofiari jarraiki, harreraren harrera-gurasoek guraso
biologikoen rola onartu behar dute, denbora baterako edo betiko, baina ez
dute inoiz haien lekua hartu behar. Azken batean, guraso-funtzioen
osagarritasuna indartu egin behar da, baina ez ordezkatu.
11. Zentzu horretan, harrera-familiak haurra-aren behar fisiko-biologikoak,
kognitiboak, hezkuntzakoak eta sozio-afektiboak asetzeko ez du soilik adin-
gabea kontuan hartu behar. Adingabeak ez du harrera-familiaren arretagune
bakarra izan behar, baizik eta egokia eta posiblea den neurrian, haurra eta
bere familia biologikoaren arteko harremanen bitartekotza eta laguntza-rola
bete behar du, laguntza eskainiz bai haurrari eta baita bere familiari ere.
12. Harrera-familiak laguntza, gainbegiratzea eta krisi-egoeran berehalako
erantzuna izan behar du profesional adituen aldetik. Gainera, atsedeen-
denboraldiak ere izan behar ditu.
13. Familia-harreraren laguntzarako edozein Programak kasu bakoitzaz
arduratzen diren arreta-zerbitzuen sarean parte hartu behar du, sistema
integratu, koordinatu eta diziplinartekoa osatuz. GIZARTEKINTZako Haur

eta Gazte Sailarekin batera, koordinazioa lortu behar da Sistema Judizialarekin, Zerbitzu Sozialekin eta kasuan inplikaturiko beste profesional edo agentziekin.

14. Kasuarekin erlazionatutako agentzia eta profesionalez gain, ez dira ahaztu behar adingabearen ongizaterako bereziki garrantzitsuak diren familia biologikoa eta harrera-familia. Beraz, jardueren koordinazioak ez ditu sistema horiek alde batera utzi behar. Zentzu horretan, beharrezkoak diren ahaleginak egin behar dira alde guztien arteko harreman positiboak eta laguntza finkatzeko. Horretarako, funtsezkoa da kasuan parte hartzen duten sistema eta pertsonen rolen, arduren eta laguntzen definizio argia izatea.
15. Harrera-prozesuan zehar, harreran dagoen adingabearen, bere familia biologikoaren eta harrera-familiaren garapena kasuaren aldizkako ebaluazioen arabera zehaztu beharko litzateke, etorkizuneko esku-hartzeari dagozkion erabakiak ebaluazio horretan oinarrituz.

Behin Programa Espezializatuaren erreferente teorikoa eta oinarritzko printzipioak aurkeztu ondoren, ondoko ataletan Programaren ezaugarriak eta bertan eskaintzen diren zerbitzuak deskribatuko dira.

4. Programaren ezaugarriak

Familia Harreraren Laguntza eta Jarraipen Programa honen arretagunea harrera-egoeran dauden adingabeak dira. Ondorioz, Programak harrera-familiarekin eta familia biologikoarekin dituen jarduera guztien oinarritzko printzipioa babestu beharreko adingabe horien ongizatearen sustapena eta zaintza dira.

Programaren helburuak ondokoak dira:

1. Kasuari dagokionez:

- a) Adingabeen, harrera-familiaren eta familia biologikoen beharrak antzematea eta haien inguruko erabakiak hartzeko proposamenak egitea.
- b) Gipuzkoako Foru Aldundiak —adingabeen eta euren familien ongizatearen arduradun gisa— kasu bakoitzean, aurreikusitako familia-harreraren helburu espezifikoaren lorpena erraztea.
- c) Familia biologikoaren nahiz harrera-familiaren aldetik familia-harreraren ezagutza, onarpena eta kooperazioa indartzea.
- d) Familia-harreraren laguntza teknikoa harrera-prozesuaren jarraipen fasean, batez ere adingabea, harrera-familia eta familia biologikoa kontuan izanik.
- e) Adingabearen harreran haustura eta aldaketa kaltegarriak aurreikustea.

2. Adingabeari dagokionez:

- a) Adingabearen ongizate integrala areagotzea: a) Bere garapenaren arlo ezberdinetan izan ditzakeen atzerapen edota beharrei arreta eskainiz,

- b) bere identitate pertsonalaren eta familiarraren garapena sustatuz eta,
 - c) garapen-faseari dagozkion roletan aritzeko beharrezko trebetasunak emanez.
- b) Harreran dauden adingabeei harrera-prozesuak berak dakartzan banaketa eta galeren ondorioei aurre egiteko eta gainditzeko beharrezko baliabideak ematea.

3. Familia biologikoari dagokionez:

- a) Arrazoi ezberdinengatik Gipuzkoako Foru Aldundiaren Haur eta Gazte Sailaren babespean dauden eta euren seme-alabengandik bereizirik bizi diren familiei laguntzea: a) familia horien eta euren seme-alaben arteko komunikazioa erraztuz; b) banaketa-egoera berriari aurre egiten lagunduz; c) euren sentipenak (galera, gutxiagotasuna, frustrazioa, haserrea...) modu baikorragoan bideratzen lagunduz, eta d) eskaintzen zaizkien komunitate-baliabideen erabilpena eta probetxua hobetuz.
- b) Familia hauek euren seme-alabekiko jarduera-planei eta eboluzioari buruz informatu eta, beharrezkoa denean, laguntza eta kolaborazioa eskatu, prozesuan zehar euren inplikazio aktiboa sustatuz.
- c) Nahiz pertsona gisa, nahiz guraso gisa familia hauetako partaideek dituzten alderdi positiboak azpimarratu.
- d) Dagokionean, adingabearen eta familia biologikoaren arteko bisiten laguntza eta kontrola egin, eta euren arteko erlazioa behatu bisita horietan.

4. Harrera-familiari dagokionez:

- a) Adingabeentzat familia ingurune beroa, maitasunezkoa, auresangarria, segurua eta indibidualizatua osatzeko baliabideak eman harrera-gurasoei.
- b) Harrera-familia adingabearentzat eta bere familia naturalarentzat banakako funtzionamenduaren eta erlazio-funtzionamenduaren eredu egokia izan dadin jardun, baina kolaboraziotik, familia biologikoa epaitua senti ez dadin, eta bere autoestimua kaltetu gabe.
- c) Adingabeen integrazioan eta harrera hasten denetik bukatzen den arte bizi izaten dituzten prozesu ezberdinak (haurra familian sartu eta egokitzeak hasi eta familiatik ateratzen den arte) maneatzeko lagundu harrera-familiari.
- d) Adingabeek euren harrera-egoeragatik edo garapen-etapa desberdinengatik bizi ditzaketen krisi ezberdinetan harrera-familiei lagundu.

5. Programak eskaintzen dituen zerbitzuak

Jarraian, Programan eskaintzen diren zerbitzu nagusiak deskribatuko dira:

5.1. Familia-orientaziorako zerbitzua

Zerbitzu hau da Programako psikologoek harrera-familiekin eta adingabeekin egiten duten lanaren ardatz nagusia. Horretarako, harrera-familia bakoitzari erreferentzia profesional bat egokitzen zaio. Psikologo hori izango da kasuaren laguntzaz eta jarraipenaz arduratzeaz gain, familiaren eta haurren ezaugarriak kontuan izanik, Programako beste zerbitzu guztiak antolatuko dituena.

Profesionala aldizka elkartuko da harrera-familiarekin edota harreran dagoen adingabearekin. kontaktu horiei esker a) egoera nola dagoen egiaztatu behar du (beharrak, sentipenak, arazoak, aurre egiteko estrategiak eta horien emaitzak aztertuz), b) planteaturiko beharrei aurre egiteko bideak eskaini behar ditu eta c) kasuaren planifikaziorako eta erabakiak hartzeko informazio garrantzitsua jaso behar du.

5.2. Bisiten kontrol-zerbitzua

Adingabeen eta euren familia biologikoen arteko bisiten garrantzia ukazina da, nahiz eta familia-harreraren prozesuan parte hartzen duten alde ezberdinen (adingabea, familia biologikoa, harrera-familia, profesionalak, babes-zerbitzuak) aztergai eta eztabaidagai izan den eta den. Halaber, bisita horiek soilik dira posible adingabeak arrisku fisikorik edota emozionalik ez duela jasango eta bisiten onura posibleak aprobetxatuko dituela bermatzen denean. Horregatik, baldintza horiek betetzen ez diren kasuetan, baina gurasoen eta seme-alaben arteko kontaktuak egokitzen jotzen direnean, Programak profesional aditu bat eskaintzen du bisita horietan egoteko. Profesionalak 1) adingabearen babesa ziurtatuko du eta 2) bisiten garapenari buruzko informazio garrantzitsua jasoko du ondoko helburuekin: a) Familia biologikoen jarraipen zerbitzuaren lan-helburu eta estrategiak modu egokian planifikatzeko, b) Familia-orientazio zerbitzuko arduradunak informazio hori kontuan hartzeko eta c) kasuari dagozkion erabakiak hartzeko laguntza izateko.

5.3. Harrera-familia taldeen zerbitzua

Bi hilabetero elkartzen diren talde hauen helburuak hauexek dira: esperientziak trukatzea eta komunikatzea, elkar laguntza eta etengabeko prestakuntza. Horretarako, talde hauek ondokoa ahalbidetzen dute:

- a) Harrera-gurasoek beste harrera-guraso batzuekin hitz egiteko eta esperientzia positiboak eta negatiboak konpartitzeko aukera izatea. Era berean, taldearen ekarpenen bidez aberats daitezke.
- b) Autolaguntzaren eta laguntza sozialaren sareak garatzea, eta adingabeak harreran dituzten familien taldearekiko partaidetza-sentimenduak areagotzea.
- c) Harrera-gurasoen etengabeko prestakuntzan laguntzea.

Izan ere, harreraren inguruko gaur egungo joeren arabera, beharrezkoa da harrera-gurasoak egoki prestatzea euren rolak eta funtzioak modu egokian bete ditzaten. Prestakuntza hori ez da adingabearen harreraren aurretik egiten den hasierako prestakuntza tradizionalera mugatzen, baizik eta denboran zehar jarraitzen duen prozesua da. Familia horiek euren funtzioak betetzeko beharrezkoak diren ezagutza eta trebetasun orokorrak badituztela jakinda, Zerbitzu honetako prestakuntzaren arduradunak harreran dauden adingabeen kasu partikularrei dagozkien arazo espezifikoek erantzuten saiatzen dira.

5.4. Krisi-egoerarako esku-hartze zerbitzua

Programan parte hartzen duten familiek eskura daukate harreran dagoen adingabearekin erlazioatutako edozein krisi edo gatazka larritan erabil dezaketen telefono-zenbakia. Dei horiek kasuaren premiaren arabera erantzuten dira.

5.5. Familia biologikoen jarraipen zerbitzua

Beste helburu batzuen artean, zerbitzu honek haurraren familia naturalarekin kontaktuak mantentzea bilatzen du, euren seme-alabaren ongizateari begira harreraren arazoak, baldintzak eta helburuak ezagutzeko aukera izan dezaten eta, ahal den neurrian, onar ditzaten eta kasuari dagozkion helburuak lortzeko lagun dezaten.

Zerbitzu honen barruan ez da sartzen familia naturalen terapiarik, izan ere horretarako kasu bakoitzaren arazoetan espezializatutako komunitate baliabideak eta GIZARTEKINTZAK (Gizarte Zerbitzuen Sailak) eskainitako programak daude.

6. Familia-harreraren inguruko ikerkuntza

Programa honetan beti eman zaio garrantzi handia familia-harreraren parte hartzen duten alde guztien –profesionalak barne– etengabeko prestakuntzari. Hori dela eta, indartu den jardueretako bat gai honi buruzko ikerketa eta materialen eskuratzea eta azterketa izan da. Gure testuinguru soziokulturalean familia-harrerak dituen ezaugarriek buruzko informazio zientifikoa eskasa dela kontuan izanda, eta familia-harreraren eboluzio egokiagoan eragiten duten faktoreetan sakontzeko beharraz jabeturik, arlo honetako ikerketa-lanen garapena bultzatu da. Euskal Herriko Unibertsitateko bi irakasleri eta Euskal Autonomia Erkidegoan familia-harreraren parte hartzen duten agente ezberdinei esker, bi ikerketa burutu ahal izan dira. Lehenengoa “Gaitasun sozio-emozionala Familia-harreraren Laguntza Programa baten ebaluaziorako helburu gisa” (Jatorrizko izenburua eta kodea: *La competencia socio-emocional como objeto de evaluación de un Programa de Apoyo al Acogimiento Familiar*, UPV 109.231-HA151/98) izan da eta bigarrena “Euskal Autonomia Erkidegoko Familia-harreraren funtzionamendu egokiaren faktore erabakigarriak” (Jatorrizko izenburua eta kodea: *Factores determinantes del buen funcionamiento del acogimiento familiar en la Comunidad Autónoma del País Vasco*, 1UPV 00109.231-HA-7766/2000). Ikerketa horietan planteaturiko funtsezko helburuak ondokoak izan dira:

1. Harreran dauden adingabeen garapen positiboa errazten duten faktoreak identifikatzea, bai adingabeengan, bai harrera-familietan eta baita haurren babesaren gaietan eskudunak diren erakundeek garatutako esku-hartzeetan ere. Horretarako beharrezkoa izan da:
 - a) Harreran dauden adingabeen egoera pertsonala aztertzea, haurren ongizatearekin eta harrera-familian haurrek duten integrazioarekin lotutako aldagaien bitartez. Zentzu horretan garrantzitsua izan da jakitea zein faktorek errazten duten adingabeak harrera-familiarekin atxikimendu lotura egonkorrak eta enpatia-maila onak lortzea, norberaren kontzeptu egokia izatea, gaitasun sozio-emozional altua izatea, bere gaitasunarekin ados dagoen eskola-errendimendua eskuratzea eta harrera-familian integrazio ona izatea.
 - b) Adingabeek lortutako ongizate-mailan eragin handiena izan dezaketen harrera-familien ezaugarriak ezagutzea. Zehazki, adingabearen familia biologikoarekin duten erlazioa, harrerarako motibazioa, hezkuntza-estiloa eta harrerarekin duten asetasuna aztertu izan dira.
 - c) Familia-harreraren funtzionamendu egokia oztopatzen duten arrazoiak aztertzea.
2. Harrera-familian adingabeak lortzen duen integrazio-maila ebaluatzeko tresna eraikitzea eta bere ezaugarri psikometrikoak aztertzea. Horretarako Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako laginak erabili dira.
3. Euskal Autonomia Erkidegoan haurren babesean eta zehazkiago, familia-harreran, eskudunak diren erakunde publikoen esku-hartzeak eta erabakiak egokiago gida ditzaketen ekintzarako gomendioak eskaintzea.

7. Hobekuntzarako proposamenak

Bukatzeko, ikerketa hauetan lortutako emaitzetan eta Programarekin urte hauetan izandako esperientzian oinarrituz, familia-harreraren prozesuan zehar esku-hartze egokiagoak aurrera eramateko balioa izan dezaketen ondorio eta hausnarketa nagusiak aurkeztuko ditugu jarraian (Achúcarro, Torres Gómez de Cádiz, Gorostiaga eta Rivero, prentsan; Herce, Achúcarro, Gorostiaga, Torres Gómez de Cádiz eta Balluerka, prentsan; Torres Gómez de Cádiz, Rivero, Balluerka, Herce eta Achúcarro, prentsan):

- a) Harrerakoak izan daitezkeen familien erakartze- eta hautatze-kanpainen adingabe bat hartu nahi duten familien motibazioari arreta berezia eskaini behar diote, altruismoan eta elkartasunean oinarritutako motibazioei lehenetasuna emanez.
- b) Adingabea harrera-familia bati esleitu aurretik, zehaztasunez ebaluatu behar da harrera horrek familiako beste adingabeengan izan dezakeen eragina. Era berean, harrera-familiaren eta familia biologikoaren artean ahaidetasuna dagoenean, bien arteko gatazka zenbaterainokoa den ikusi behar da, eta gatazka handia dagoenean familia desegokitzen hartu behar da.
- c) Modu orokorragoan, harrerakoak izan daitezkeen zenbait familiaren desegokitasuna aztertu behar da, harreran egongo den adingabearen familia biologikoaren garrantzia onartzeko eta errespetatzeko arazoak dituztenean.

- d) Adingabearen bi hazkunde-testuinguruen arteko bitartekotza lana egin behar da, hots, familia biologikoaren eta harrera-familiaren artekoa, adingabearen garapen hobea errazteko bi familien arteko harremanak hobetzen saiatuz.
- e) Kontuan izanik adingabeak zenbat eta gazteagoak izan harreraren hasieran, orduan eta errazagoa izango zaiela harrera-familian integratzea, garrantzitsua litzateke erabakiak hartzeko prozesuak azkartzea, erabaki horiek zazpi urte baino gutxiagoko haurrei eragiten dienean.
- f) Harrera-familiatan programa espezializatuen bitartez aktibatzen diren esku-hartze estratergiei dagokienez, garrantzitsua da adingabearen eta harrera-familiaren arteko atxikimendu-lotura seguruak sustatzea, harreran dauden adingabe guztiek beren buruaren irudi positiboagoa gara dezaten.
- g) Adingabearen eta bere familia naturalaren arteko kalitate oneko bisitak indartu eta gainbegiratu behar dira. Bisitek adingabearen beharrak modu egokian asetzen ez dituztenean, murriztu egin beharko liriateke.
- h) Prozesu guztian zehar inplikaturik dauden agente guztiei estres-iturriak gutxitzeko baliabideak eta etengabeko errefortzu positiboa eskaini behar zaizkie.
- i) Harrera-familian eta harrera-sistema osoan iguripen errealistak sustatu behar dira, sentipen ezkorrak saihesteko.

Erreferentziak

- Achúcarro, C.; Torres Gómez de Cádiz, B.; Gorostiaga, A. eta Rivero, A. (prentsan): "La familia acogedora como recurso de protección y potenciación de la adaptación y competencia sociales de los menores acogidos", *Psicothema*.
- Belsky, J. (1984): "The determinants of parenting: a process model", *Child Development* **55**, 83-96.
- Berrick, J.D.; Needell, B.; Barth, R.P. eta Jonson-Reid, M. (1998): *The tender years: toward developmentally sensitive child welfare services for very young children*, Oxford University Press, New York, NY.
- Bronfenbrenner, U. (1979): *The ecology of human development: Experiment by nature and design*, Cambridge University Press, Cambridge.
- , (1985): "Contextos de crianza del niño", *Infancia y Aprendizaje* **29**, 45-55.
- Child Welfare League of America (1995): *Standards of excellence for family foster care*, Child Welfare League of America, Washington.
- Fine, P. (1994): *A developmental network approach to therapeutic foster care*, Child Welfare League of America, Washington.
- Herce, C.; Achúcarro, C.; Gorostiaga, A.; Torres Gómez de Cádiz, B. eta Balluerka, N. (prentsan): "La integración del menor en la familia de acogida: Factores facilitadores", *Intervención Psicosocial*.
- López, F. (1995): *Necesidades de la infancia y protección infantil, I: Fundamentación teórica, clasificación y criterios educativos de las necesidades infantiles*, Ministerio de Asuntos Sociales, Madrid.
- López, F.; Torres Gómez de Cádiz, B.; Fuertes, J.; Sánchez, J.M. eta Merino, J. (1995): *Necesidades de la infancia y protección infantil, II: Actuaciones frente a los malos tratos y desamparo de menores*, Ministerio de Asuntos Sociales, Madrid.

- Maluccio, A.N.; Fein, E. eta Olmstead, K.A. (1986): *Permanency planning for children. Concepts and methods*, Tavistock Publications, New York-London.
- Redondo, E.; Muñoz, R. eta Torres Gómez de Cádiz, B. (1998): *Manual de buena práctica para la atención residencial a la infancia y adolescencia*, Federación de Asociaciones para la Prevención del Maltrato Infantil (FAPMI), Madrid.
- Torres Gómez de Cádiz, B.; Rivero, A.; Balluerka, N.; Herce, C. eta Achúcarro, C. (prentsan): "Autoconcepto de los menores en acogimiento familiar: Diferencias en función del tipo de acogimiento, historia de crianza y problemática de la familia natural", *Infancia y Aprendizaje*.